

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### **Añana eta Zaldondo udal elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea**

Ikusita Añana eta Zaldondo udal elkarteko idazkari-kontuhartzaileak 2016ko urriaren 1ean lanpostua uzteko asmoa agertu duela.

Ikusita 1732/1994, Errege Dekretua, eta dioenarekin bat eginez, uztailaren 29koa eta estatuturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuei buruzkoa, lanpostu hori idazkari-kontuhartzaile azpieskalakoa da eta estatuturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat erreserbatuta dagoela

Kontuan hartuta lanpostu hori betetzea ezinbestekoa dela udal jarduera eten ez dadin

Ikusita 1732/1994, Errege Dekretuko 30 eta 34 artikulua honen inguruan diotena, uztailaren 29koa eta estatuturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuei buruzkoa,

Ikusita Añanako Alkateak aurkeztutako idatzia zeinetan Añana eta Zaldondo udal elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua ahalik eta azkarren betetzeko asmoa agertzen duen, eta Zalduondoko Alkateari idazkari-kontuhartzailea edukitzeko beharrezko diren kudeaketak egin ahal izateko eskumenak eman

Kontuan hartuta 7/1985 Legearen 21.1 artikulua honen inguruan dioena, apirilaren 2koa eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea,

Honen bidez,

#### ERABAKI DUT:

**LEHENENGOA.** Hamar egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek parte hartzeko eskaerak egiteko; xedea da Zaldondo eta Añanako udalen elkarteko idazkaritza-kontuhartzaitzako plaza betetzea, behin-behineko izendapen bidez. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduari jarraituta egin behar dira.

Gaikuntza nazionala daukan toki administrazioako funtzionario bat izendatuko da, eta lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek izango dute lehentasuna, hori behar den moduan egiaztatuko delarik.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagaitzat: puntu gehien lortu duena parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan.

**BIGARRENA.** Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarekin. Lanaldia osoa izango da.

**HIRUGARRENA.** Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

**LAUGARRENA.** Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak

betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako prozedurak Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran

BOSGARRENA. Añanako Udalari ebazpen honen berri ematea dagokion ondorioak izan ditzan.

SEIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Zalduondon, 2016ko irailaren 15ean

*Alkatea*

*GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE*

### ERANSKINA

“Nik, .....jaunak/andreak (NANA: .....; jakinarazpenetarako helbidea: .....; herria.....telefono zenbakia: .....), zeinak, gaikuntza nazionaleko funtzionarioa izanik, ..... azpieskalakoa, egun ..... toki erakundearen ..... lanpostua betetzen baitut, ondoko hau .

Adierazten dut:

Jakin dudala Zalduondoko eta Añanako udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, ..... ALHAOn (....zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta aukera dagoela lanpostu hori aldi baterako betetzeko, bat etorritz uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan xedatutakoarekin. Uste dudala betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion zereginak zuzen betetzeko beharrezko eskakizunak, eta, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz, eta bidezko diren izapideak bete eta gero.

Eskatzen dut:

Zalduondoko eta Añanako udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behinekoko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea. Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten ditut: — NANaren fotokopia — Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria. — 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dudala ziurtatzen duen agiria. ...., 2016ko .....aren .....(a)

Izenpea: